

**EUSKADIKO UDALEN ARTEAN ETA HORIEN ETA BESTE HERRI-
ADMINISTRAZIO BATZUEN ARTEAN DATUAK TRUKATZEKO GIDA**



Aurkibidea

SARRERA	2
Lege-testuingurua.....	2
Kontzeptu orokorrak.....	3
Euskadiko elkarreragingarritasun-eredua.....	5
Ereduari atxikitzea	7
KONTSULTATZEKO GAITZEA	8
Aurkakotasunik eza.....	8
Legea.....	9
Baimena	9
GOMENDIO OROKORRAK.....	9
1. Prozeduraren kodea eta izena	9
2. Araudiaren egokitzapena	10
3. Testu informatiboa araudian	10
4. Eskaera egiteko beharrezko datuen aipamena	11
5. Inprimakien egokitzapena	11
BAIMENAK ONARTZEKO EZINBESTEKO BALDINTZA	12
Nahitaezko eskakizunak.....	12
Oharra	12
KASU ESPEZIFIKOAK.....	13
Kontratazioa	13
Laguntza eta dirulaguntza izendunak.....	13

SARRERA

Honako dokumentu honen xedea da Euskadiko udalei, eta, bereziki, udal txiki eta ertainei, administrazioen artean datuak trukatzeko zerbitzuak erabiltzen laguntzea, bai lagatzaile gisa, bai lagapen-hartzaile gisa.

Administrazioen artean datuak trukatzeko zerbitzuak erabiltzeak onura handiak dakarzkie bai herritarrei, bai administrazioei beraiei. Herritarrei ziurtagiriak eskatu eta aurkeztu behar izatea saihesten die; horrela, zerbitzu publikoetarako sarbidea errazten die, administrazio-kargak ezabatzen baititu. Administrazioei, berriz, beren prozesuen eraginkortasuna handitzeko aukera ematen die, bai herritarrei zuzendutako arretan, bai barne-tramitazioetan, bai eskatzen diren kanpoko informazioen fidagarritasuna bermatzeko orduan.

Dokumentuak lehen aurkezpen-kapitulu bat du, eta, kapitulu horretan, administrazioen arteko datu-trukea arautzen duen lege-esparrua deskribatzen da, bai eta Euskadiko elkarreragingarritasun-eredua ere, NISAE Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren inguruan artikulatzen dena. Kapitulu berean, udal bat NISAEri atxiki ahal izateko eta datuak trukatzeko zerbitzuak erabili ahal izateko alde zuzentzeko egin behar dituen urratsak zehazten dira.

Hurrengo kapituluetan, informazio-zerbitzuak eskatzeko, kontsumitzeko eta emateko gomendioen eta jardunbide egokien zerrenda bat jasotzen du dokumentuak.

Lege-testuingurua

Arau hauek osatzen dute administrazioen arteko datu-trukearen legezko erreferentzia-esparrua:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena [28. artikulua].
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena [155. artikulua].
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa [azken xedapenetako 12.ak 39/2015 Legearen 28. artikulua aldatzen du].
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du (Datuak babesteko erregelamendu orokorra).
- Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala: Bitartekaritza Protokoloen Elkarreragingarritasuneko Arau Teknikoa.
- Segurtasunaren Eskema Nazionala.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera (28.2 art.), interesdunek **eskubidea dute** administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egiteko dokumentuak ez aurkezteko. Administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak aurka egiten ez badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu beharko dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboaren bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoen bidez kontsulta eginez.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak (3. artikulua) elkarreragingarritasuna jasotzen du administrazio publikoen jarduketa-printzipioen artean; hala, administrazioek bitarteko elektronikoen erabiliko dituzte beren artean, sistemak eta horietako

bakoitzak hartutako irtenbideek elkarreragingarritasuna eta segurtasuna dutela ziurtatzeko, datu pertsonalak babesteko, eta, ahal dela, interesdunei zerbitzuak batera emateko.

Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6. artikulua datuen tratamendu bat, datuen trukea, zehazki, zilegi izateko baldintzak ezartzen ditu. Halaber, arau horren 21. artikulua interesdunak aurka egiteko duen eskubidea arautzen du.

40/2015 Legearen 156. artikulua **Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala (ENI)** jasotzen du: "Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalak informazioaren, formatuen eta aplikazioen segurtasuna bermatzeko eta haiek kontserbatzeko eta normalizatzeko irizpideak eta gomendioak hartzen ditu barnean. Administrazio publikoek kontuan izan beharko dituzte irizpide eta gomendio horiek, elkarreragingarritasuna bermatuko duten erabaki teknologikoak hartzeko".

Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala 11/2007 Legearen 42. artikuluan ezarri zen lehenago, eta urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan gauzatzen da; Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen du dekretu horrek. Administrazio publikoen arteko eta herritarrekiko elkarreragingarritasunaren alderdirik praktikoak eta operatiboak errazteko xehetasunak zehazten dituzte elkarreragingarritasuneko arau teknikoak.

Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalak honela definitzen du elkarreragingarritasuna: **informazio-sistemek eta sistema horien euskarri diren prozedurek datuak partekatzeko eta informazioa eta ezagutza trukatzeko duten gaitasuna.**

Zehazki, Datuen Bitartekaritza Protokoloen Elkarreragingarritasuneko Arau Teknikoaren xedea da administrazio publikoen edo haiei lotutako edo haien mendeko zuzenbide publikoko erakundeen (aurrerantzean, erakundeak) arteko datu-trukerako zehaztapenak ezartzea.

Kontzeptu orokorrak

Datuen Bitartekaritza Protokoloen Elkarreragingarritasuneko Arau Teknikoaren arabera, hauek dira datu-trukeetan esku hartzen duten eragileak:

- **Lagatzailea.** Beste erakunde batek bere eskumenen esparruan kontsultatu behar dituen herritarrei buruzko datuak dituen erakundea; datu horien arduraduna da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eta izan daitezkeen lagapen-hartzaileei eskainiko dizkie, igorle baten bidez.
- **Lagapen-hartzailea.** Lagatzaile baten esku dauden herritarren datu jakin batzuk kontsultatzeko baimena duen erakundea.
- **Igorlea.** Datuak teknologiaren ikuspegitik lagatzea ahalbidetzen duen erakundea. Bere datuak lagatzea ahalbidetzen duen lagatzaile bat igorle ere izango da, lagatzaile izatearekin batera. Igorle baten datuak igortzeko edo lagatzeko izapideen kudeaketan parte hartzen duen elkarreragingarritasun-nodo orok ere igorlearen rola hartuko du.
- **Eskatzailea.** Datuak teknologiaren ikuspegitik kontsultatzea ahalbidetzen duen erakundea. Datuak zuzenean kontsultatzen dituen lagapen-hartzaile bat eskatzaile ere izango da, lagapen-hartzaile izatearekin batera. Eskatzaile baten datuak kontsultatzeko izapideen kudeaketan parte hartzen duen elkarreragingarritasun-nodo orok eskatzailearen rola ere hartuko du.

Ondorengo grafikoak eragile horietako bakoitzaren funtzioak erakusten ditu, bai eta elkarreragingarritasun-nodoenak ere; azkeneko horiek igorlearen rola hartuko dute igorle baten datuak igortzeko edo lagatzeko izapideen kudeaketan parte hartzen dutenean, eta eskatzailearen rola hartuko dute eskatzaile baten datuak kontsultatzeko izapideen kudeaketan parte hartzen dutenean.



Datuen Bitartekaritza Protokoloen Elkarreragingarritasuneko Arau Teknikoaren arabera, elkarreragingarritasun-nodo batek beste zerbitzu batzuk hartu ahal izango ditu bere gain, eskuordetzaren bidez.

Edozein administrazio publiko **lagatzailek** elkarreragingarritasun-nodo baten esku utzi ahal izango ditu rol horri dagozkion zeregin bereziak:


- a) Beste erakunde batzuen esku dauden truke-zerbitzuen bidez eskuragarri dauden datuak trukatzeko zerbitzuak katalogatzeko edo erregistratzeko informazioa emango du, kontsultatu ahal izateko.
- b) Zerbitzuetara sartzeko baimenei dagokienez:
 - i. Eskaintzen dituzten datuak trukatzeko zerbitzuetara sartzeko protokoloak eta baldintzak, baimendutako kontsulta-metodoak eta eskatzaile bakoitzari buruz ezagutu beharreko informazioa zehaztuko ditu.
 - ii. Eskaera bat atzera botatzeko edo ukatzeko kasuak arrazoituko ditu.
 - iii. Auditoretza-politika definituko du, eta, noizbehinka, auditoretzak egingo ditu bere datuen kontsultei buruzko sistemaren erabilerari buruz.

Bestalde, edozein administrazio publiko lagatzailek **igorlearen** zereginak eskuordetu ahal izango dizkio elkarreragingarritasun-nodoari, bereziki, eskaintzen dituen datu-trukerako zerbitzuetara sartzeko baldintza teknikoaren betearazpena, baimendutako kontsulta-metodoak eta kontrol eta auditoria teknikoak.

Euskadiko elkarreragingarritasun-eredua

Euskadiko elkarreragingarritasun-eredua Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren (NISAE) inguruan egituratzen da. **NISAE** euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztietarako plataforma bateratua da, eta nodo autonomiko gisa eratuta dago, haien artean eta gainerako administrazioekin (Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoak) datuak trukatzeko, sinergiak bateratuz.

Irtenbide bateratu bat da, erakundeen arteko datu-trukaketan **kudeaketa banaturako eredu** baten inguruan egituratzen dena. Berezko funtzionaltasunetik harago, haren diseinua elkarreragingarritasuna egituratzen duen eredu batean oinarritzen da, Euskadiko administrazioen antolaketa-errealitatera egokituta. Horregatik, NISAEk aurkezten duen irtenbidea bertan parte hartzen duten **eragile instituzionalen artean adostu da**.



NISAE da euskal administrazio publikoen artean nahiz administrazio horien eta Estatuko gainerako administrazioen artean –bereziki Estatuko Administrazio Orokorrekin– paperezko ziurtagiriak ordeztzen dituzten datuen trukea artikulatzeaz eta praktikan ezartzeaz arduratzen den nodoa, zeregin horrekin sinergiak batuz.

Horregatik, oso garrantzitsua zen eredu Euskadiko administrazioen egiturara, idiosinkrasiara eta kulturara egokitzea; hala, bada, horretan parte hartzen duten eragile instituzionalen artean adostu da, eta lizenpe aukeratu da nodoaren ardatz izango den eragiletzat.

Honako funtzio hauek betetzen ditu NISAEk:

- Lagapen-hartzaileak eta eskatzaileak kudeatzea, lagatzaile bakoitzak ezarritako baldintzen arabera.
- Trukatutako informazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna ziurtatzea, dagozkion mekanismoen bidez.
- Plataformari buruzko dokumentazio guztia bilduko duen web-atari informatibo bat edukitzea.
- Sistema martxan mantentzea etengabe (24x7).
- Erakundeei laguntza ematea, eta sortutako komunikazio eta gorabehera guztiak kudeatzea, eskatzaileekin eta igorleekin elkarlanean.
- Erabiltzaileei eta integratzaileei arreta eskaintzeko zentro bat izatea, sistemaren inguruko gorabehera guztiak bideratzeko eta harremanetarako datuen berri emateko.
- Plataformako jarduerari eta erabilerari buruzko txostenak egitea, kontuan hartuz erakunde bakoitzak egindako kontsultak eta haiei egindakoak.
- Sistemak garatzea eta mantentzea, datuen segurtasuna eta pribatutasuna bermatuz, aplikatu beharreko araudiaren arabera.
- Auditoretza-lanetan laguntzea, igorleak edo lagatzaileak hala eskatzen eta zehazten badu; horrelako kasuetan, trazabilitaterako eta estatistiketarako hitzartutako datuak gordeko dira, eta datuok behar denean aztertu ahal izango dira.

NISAEren funtzio guztiak aplikazio bakar batean integratuta daude. Aplikazio horrek kudeaketa partekatua ahalbidetzen du, eta honako modulu hauetan banatzen da:

- Erabiltzaileen kudeaketa.
- Zerbitzuen kudeaketa.
- Baimenen kudeaketa.
- Alerten sistema.
- Eskuzko bitartekaritza.
- Bitartekaritza automatikoa.
- Auditoretza.



Hala, eragile bakoitzak kasu bakoitzean duen funtzioaren arabeko rol-eredu bat ezartzeko moduan diseinatu da nodoa. Konbinazioak askotarikoak dira; erakunde eskatzaileak eta lagapen-hartzaileak desberdinak diren kasuak izango dira ohikoenak, baina, kasu batzuetan, erakunde bat zerbitzu baten eskatzaile eta igorle izan daiteke aldi berean. Nodoa administratzeaz arduratzen diren pertsonen funtsezko zeregina dute antolaketan, baimenen administrazioan eta nodoaren arintasunean.

NISAEk kontsumo guztiak egingo ditu, dela NISAEren aplikazioaren bidez eskuz egindako bitartekaritzaren bidez (bezero arina), dela nodoan bertan argitaratutako zerbitzuen gaineko sistemen arteko zuzeneko konexio bidezko bitartekaritza automatikoaren bitartez, eta EuskalSarearen bidez eskuratu ahal izango da, EAEko erakunde publikoak ingurune seguru batean dauden zerbitzuetara konektatzen direla ziurtatuz. Sistemak eta plataformak berrerabiltzeko filosofiarekin jarraitzeko aukera ematen du horrek.

Ereduari atxikitzea

Araba

Bizkaia

Elkarreragingarritasunean eman beharreko pausoen inguruko informazio guztia webgune honetan topatu ahal izango da: <https://www.ebizkaia.eus/es/interoperabilidad>. Dena den, eman beharreko pausoak laburtuko ditugu jarraian.

1. Toki-erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko **Elkarreragingarritasun** Hitzarmena **sinatzea**. Ezinbestekoa izango da Bizkaiko elkarreragingarritasun-nodoaren bidez elkarreraginean aritzeko.
2. **Alta ematea Bizkaiko NODOan, egoitzaren bitartez**: Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzaren bidez Bizkaiko Nodoan alta ofiziala emateko eskatzen zaio toki-erakundeari, ['Alta Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoan'](#) izapidearen bidez, erakunde bakoitzeko solaskideak identifikatzeko xedez.
3. Aurreko izapideak egin ondoren, honako hauek egin ahal izango dira:
 - **Beste Administrazio batzuetako datuak kontsultatu edo egiaztatu** – Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoan Altan adierazitako pertsonen eta Administrazioaile-profila dutenek izango dute sarbidea “Baimenen Kudeaketa” modulura. Aplikazioaren puntu horretatik, espedienteen izapidetzeen inguruko eguneroko kontsultak egiteko baimenak eskatu beharko dira.
 - **Datuak beste administrazio batzuei erakustea** - Lagatzaile gisa jardutea: [inprimaki](#) hau bete beharko da zerbitzuen nodoan argitaratzeko, eta, **sartzeko baldintzak betez gero**, lagapen-hartzaileari aukera emango diote datuak kontsultatzeko edo egiaztatzeko.

Gipuzkoa

1. **IZFEko dagokion aholkulariarekin harremanetan jartzea**; hark emango dizkio hurrengo urratsetarako formalizatu beharreko dokumentuen ereduak.
2. Hala badagokio, honako protokolo hau **sinatzea** eta IZFEra bidaltzea: "ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXIKITZEKO PROTOKOLOA; EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO

ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN SINATUTAKOA, ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATUTAKOA".

3. Bitartekaritza-plataformako zerbitzuak erabiltzeko baimen-eskaera **sinatzea** eta IZFEra bidaltzea (Estatuko Administrazio Orokorra).
4. **IZFEk izapidetuko du NISAEko alta**, eta dokumentazio guztia helaraziko die.

KONTSULTATZEKO GAITZEA

Baimena ematea ez da oinarri juridiko baliorduna administrazio publiko batek datuak tratatzeko; izan ere, interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren (administrazioa) arteko desoreka argiak ez du bermatzen baimena libreki eman denik, DBEOk eskatzen duen bidetik (42. eta 43. puntuak, kontuan hartzekoak direnetan).

Bi dira administrazio publiko batek datuak tratatzeko oinarri juridikoak (DBEOren 6. art.):

- c) tratamendua beharrezkoa izatea tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion **lege-eginbeharra** betetzeko;
- e) tratamendua beharrezkoa izatea **interes publikoaren** izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako **botere publikoen** izenean gauzatutako eginkizun bat betetzeko;

Hala ere, gure ordenamendu juridikoko lege batzuek interesdunaren **berariazko baimena** eskatzen dute oraindik ere datu mota jakin batzuk ematen dituzten zerbitzuak eskuratzeko: kategoria bereziak, kondenak eta arau-hauste penalak edo zerga-datuak. Zerga-datuei dagokienez, Lurralde Historikoetako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 92. artikuluan (Araba eta Gipuzkoa) eta 94. artikuluan (Bizkaia) jasotzen dute zein kasutan ez den baimenik behar datu horiek eskuratzeko. Arau horietako d) atalak honako hau ezartzen du: "*Herri-administrazioekin lankidetzan aritzea Herri Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak jazartzen eta herri funtsen edo Europar Batasunaren funtsen kargurako laguntzak edo diru-laguntzak lortu edo jasotzeko maularen aurkako borrokan*". Datuak babesteko araudi berriari egokitutako artikuluen honen interpretazioaren arabera, ez da beharrezkoa baimena ematea laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko.

Oro har, 39/2015 Legearen 28. artikulua administrazio jardulea gaitzen du bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatzeko edo biltzeko (2), "**interesdunak aurka egiten ez badu**". Artikulu horri dagokionez, Datuak Babesteko Euskal Agentziak honako hau ezartzen du 175/2018 txostenean: "Gogorarazi behar da aurka egiteko eskubidea DBEOren 21. artikuluan arautzen dela, eta, artikulu horren arabera, aurka egiteko eskubideak interesdunari eskatzen dio adierazteko tratamenduaren aurka egiteko jarrera horren oinarrian dagoen egoera pertsonalaren ondoriozko arrazoiak; ondoren, tratamenduaren arduradunak haztatu beharko ditu arrazoi horiek".

Horrela, eskatzen den informazio-zerbitzuaren arabera eta zer prozeduratarako behar den aintzat hartuta, hiru gaikuntza mota gerta daitezke: aurkakotasunik eza, legea eta baimena.

Aurkakotasunik eza

Gaikuntza mota honetan, **interes publikoa** da tratamenduaren oinarri juridikoa.

Hau da gaikuntza motarik ohikoena; izan ere, modu orokorrean aplikatzen da, ondoren azaltzen diren gaikuntza motetako bat erabiltzera berariaz behartzen duen legerik ez dagoen kasu guztietan.

Gaikuntza mota honetan, interesdunaren aurka egiteko eskubide arrazoitua bermatu beharko da.

Legea

Gaikuntza mota hau aplikatzen da tratamendua beharrezkoa denean tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion **lege-eginbehar bat** betetzeko. Tratamendu hori honako hauekin lotuta egon daiteke:

- Zerbitzu bat edo zerbitzu mota bat: eskatzailearen nortasuna egiaztatzea.
- Prozedura edo prozedura-familia bat: zehapen-espedienteak edo ikuskapen-espedienteak.
- Zerbitzuaren eta prozeduraren arteko konbinazio bat: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, laguntzak eta dirulaguntzak emateko.

Gaikuntza mota hau aplikatzen denean, ez da beharrezkoa interesdunaren aurka egiteko eskubidea bermatzea.

Baimena

Lege batek interesdunaren berriazko baimena eskatzen badu datu mota jakin batzuk (kategoria bereziak, kondenak eta arau-hauste penalak...) ematen dituzten zerbitzuak eskuratzeko.

GOMENDIO OROKORRAK

Kapitulu honetan, Euskadiko udalek eta beste toki-administrazio batzuek beste administrazio publiko batzuetako informazio-zerbitzuak eskuratzeko baimenak eskatzeko orientabideak eta jarraibideak ematen dira.

Atal honen helburua ez da eskaerak betetzeko eta izapidetzeko aukera ematen duten aplikazio informatikoak nola erabili azaltzea; berriazko gidak daude horretarako, adibidez, NISAren web-orrietan aurki daitezkeenak ([Eskabideak egiteko gida](#), [Entitatea administratzeko gida](#)). Helburua da gai zehatzetarako orientabideak eta gidalerroak eskaintzea.

Eskabideetan eman beharreko informazioari dagokionez, honako hauek adierazi behar dira nahitaez:

- Herritarrek egiazta/kontsulta dezaketen egitateren bat justifikatzeko **"eskatutako" ziurtagiria aurkezteko prozedura**.
- **Prozedura ezartzen duen araua** (edo hura babesten duena).
- Prozedura abiarazten duen **eskabidearen eredia edo inprimakia**.

Datu horiek guztiak egoitza elektronikoari dagozkion izapidean jasoz gero, informazio guztia biltzen duen URLa eman ahal izango da.

Ondoren, prozedura ondo diseinatzeari, araudiari eta inprimakiei buruzko jarraibideak datoz.

1. Prozeduraren kodea eta izena

Prozedura-kodea

Halakorik izanez gero, SIA kodea emango da. Halakorik ez badugu, gehienez ere 20 karaktere eta honako formatu hau izango duen kode bat definitzea gomendatzen da:

- Erakundearen IFK
- Familiaren edo prozedura motaren literala (Adib.: LAGUNTZAK)
- Zenbaki korrelatibo bakarra prozedura bakoitzeko.

Prozeduraren izena

Ez dira baliozkoak eskatu beharreko zerbitzuaren izena duten prozeduren izenak (adib.: zerga-datuak kontsultatzea), ez eta prozeduraren kodea edo lagatzailearen izena dituztenak ere (adib.: ZAEAREN datuak kontsultatzea).

Prozedura motak

Bi prozedura motatan zatituko dira:

Aldizkakoak: denbora tarte jakin batean datuak kontsultatu behar direneko prozedurak, eskaeren epeak eta ebazpen-datak X hilabeteko, urtebeteko edo bi urteko epe jakina dutenean (ez dira iraunkorragoak izaten).

Adibidez: Euskal sektore turistikorako COVID-19 laguntzak

Ez-aldizkakoak: Beti irekita dauden eta izapideek ezarritako eperik ez duten prozedura, izapide edo zerbitzuak dira.

Adibidez: Gizarte Larrialdirako laguntzak

2. Araudiaren egokitzapena

Prozedura argitaratuta dagoen ordenantzak edo araudiak ofizialki argitaratuta egon behar du.

3. Testu informatiboa araudian

Araudi erregulatzailean azalpen-testu bat sartzea komeni da, administrazioen artean trukatzeko bitartekoak daudela jakinarazteko herritarrei, eta beste administrazio batzuen esku dagoen daturik ez dutela aurkeztu behar adierazteko.

Jarraian, testu-proposamen bat dator, eta araudi berrian, inprimakian edo haren berri ematen den egoitza elektronikoko izapidearen URLan jasota egon beharko litzateke.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua ezartzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazioak egin dituen dokumentuak ez aurkezteko.

XXX Udalean gai honetako eskumena duen zerbitzuak/sailak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahal izango ditu, interesdunak modu arrazoituan horri aurka egin ezean.

Datu pertsonalen trataera legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo XXXX-ko Udalari berari emandako botere publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

XXXXXX-(e)ko Udalari dagokio prestazio/laguntza/dirulaguntza/beka honetara sartzeko eta mantentzeko araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, Administrazio Publiko ugarietatik bitarteko telematikoen bidez jasotako informazioa aintzat hartuta.

Zure datuak kontsultatzearen aurka eginez gero, eskubide hori balia dezakezu erregistro elektronikoko bidez aurka egiteko eskatuta (eskaeran aurka egite hori zein prestazio/laguntza/dirulaguntza/beka eta abarretan egin nahi duzun zehaztu behar duzu). Kontuan izan aurka egiteko eskubidea erabili duzun izapideetan hura izapidetzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko duzula.

[Edo azken paragrafoa honako testu honekin ordezkatu:

Interesdunak (pertsona fisikoa) beste Administrazio batzuei bere datuak kontsultatzearan aurka egiteko aukera izanez gero, aurkakotasun horrek arrazoituta egon beharko du. Aurka egiteko eskubidea baliatu nahi izanez gero, dokumentazioa interesdunak aurkeztu beharko du.”]

4. Eskaera egiteko beharrezko datuen aipamena

Datuak minimizatzeko printzipioaren arabera, datuak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera ([DBEOren 5.1.c artikulua](#)).

Halaber, *“administrazio publikoek ez diete interesdunei galdatuko aplikatzekoa den araudiak eskatzen ez duen (...) datu edo dokumenturik”* ([Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.3 artikulua](#)).

Beraz, **kontsultatu beharreko informazioa berariaz adierazi beharko da araudiaren oinarrietan.**

5. Inprimakien egokitzapena

Interesdunak bete beharko dituen inprimakiek ez dute tarterik edo jarraibiderik izan behar administrazioen arteko bitartekaritzaren bidez kontsulta daitezkeen informazioak eskatzeko.

Inprimakirako egokitzapenak dagokion prozeduraren kasuan aplikatu beharreko gaikuntza motaren eta kontsumitu beharreko informazio-zerbitzuaren arabekoak dira: legea, baimena eta aurkakotasunik eza.

Aurkakotasunik eza

Kontsultarako berariaz gaitzen duen edo berariazko baimena eskatzen duen legerik ez dagoenean, eduki hauek jaso beharko dira inprimakietan edo horietara sartu aurretik erakusten den pantaila orokor batean:

- Testu orokor bat, interesdunari kontsultaren eta kontsulta horren aurka egiteko aukeraren nahiz aurka egiteko jarraitu behar duen prozeduraren berri ematen diona. Testuak tratamendua ahalbidetzen duten eta aurka ez egiteko eskubidea babesten duten legeak aipatu behar ditu (39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena, 28.2; Datuak Babesteko Europako Erregelamendua, 6.1.d eta 21).
- Zer informazio zehatz kontsultatuko den adierazten duen testu bat. Informazio hori espezifikoa denez, inprimakian bertan jaso beharko da.
- Interesdunak kontsultaren aurka dagoela adierazteko eta aurkakotza hori justifikatzen duten alegazioak aurkezteko behar diren mekanismoak. Inprimakiak nahitaez jaso behar du aurkakotasuna adierazteko mekanismoa: markatu beharreko laukitxo bat izan daiteke, eta alegazioetarako hainbat aukera egon daitezke:
 - Berariazko eremu bat jar daiteke inprimakian.
 - Eranskin bat aurkezteko aukera eman daiteke.
 - Aurka egiteko inprimaki orokor bat presta daiteke.

Legea

Informazio jakin bat kontsultatzea beharrezkoa bada legezko betebeharrak betetzeko, inprimakietan horren berri emango zaio eskatzaileari, kontsultatzen den informazio

zehatza eta kontsulta gaitzen duen legea berariaz adieraziz, horretarako baimenik emateko eta aurka egiteko aukerarik izan gabe.

Baimena

Lege batek interesdunaren berariazko baimena eskatzen duenean kontsulta jakin baterako, inprimakietan kontsultatutako informazio zehatza adieraziko da, bai eta baimena eskatzera behartzen duen legea ere, eta baimena emateko ekintza argi bat eskatzeko beharrezkoa den mekanismoa jasoko da: normalean, interesdunak markatu beharko duen lauki bat izango da, eta markatu gabe agertu behar du berez.

BAIMENAK ONARTZEKO EZINBESTEKO BALDINTZA

Nahitaezko eskakizunak

- Araudiak kontsultatu beharreko datuak jaso behar ditu nahitaez
 - Eskatuko dugun datua aipatu beharko da
 - Ez da nahitaez aipatu beharko elkarreragingarritasuneko zerbitzu jakinik
- Araudi berriak, 2021etik aurrera, testu informatibo bat jaso beharko du elkarreragingarritasunari eta bide horretatik datuak kontsultatzeari aipamena eginez.
- Inprimakiek ez dute erantsi beharreko dokumentazioa aipatu beharrik elkarreragingarritasun bidez informaziorako sarbidea eskatuz gero.
- Inprimakietan interesdunari jakinarazi beharko zaie zer datu elkarreragingo diren, eta zer eskubide dituen (aurka egiteko aukera barne, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aintzat hartuta)

Gomendioak (eskakizun hauek bete ezean, kasurik onenean urtebetez eskatutako zerbitzuaren kontsumoa soilik baimenduko da)

- Araudian komeniko litzateke elkarreragingarritasunari buruzko testu informatibo orokor bat sartzea (ikus Gomendio orokorren ataleko 3. puntua)
- Inprimakietan, elkarreragin beharreko datuen baitan, eskatuko den baimena jasotakoan erabiliko den datu jakina zehaztuko da.
- Kasu bakoitzean dagokion gaikuntza erabili beharko da; aurkakotasunik eza, legea edo baimena. Kasu gehienetan aurkakotasunik ez egiteagatiko gaikuntza da, beraz, interesdunaren arazoitutako aurkakotasun-eskubidea nola balia daitekeen zehazteko aipamena gehitu beharko da.
- Ez deitu prozedurara elkarreragingarritasun-zerbitzu moduan

Oharra

- Aldizkako prozeduren kasuan, ez da eskakizun estrarik ezarriko, lehen aipatutako nahitaezko eskakizunak besterik ez.
- Aldizkakoak ez diren prozeduren kasuan, ez dira modu mugagabean onartuko, salbu eta nahitaezko eskakizunak betetzeaz gain araudia egokituta badute. Araudia egokituta egon ezean (testu informatiboa, kontsultatu beharreko datuak ez agertzea edo dokumentuak aurkeztea...) aldizkako prozedura gisa hartuko lirateke eta gehienez urtebeteko indarraldia emango zaie.

KASU ESPEZIFIKOAK

Kontratazioa

Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2019 Legearen arabera erakunde ugariak egindako kontratazioekin lotura duten prozedura mota oro. Kasu horietan, araudia eta inprimakiak honakoak izango dira:

- Araudia: Administrazio publikoen kontratazio-legea.
 - “Legetzat” egokituko dira Zerga Betebeharren zerbitzuak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, 9/2017 Legeko 71.1.d artikularen bidez.
 - “Baimentzat” egokituko dira beharrezkoak diren beste zerga-datu batzuk, adibidez, JEZ, dagozkion artikuluen bidez.
 - “Aurkakotasunik ezekotzat” egokituko dira zerga arlokoak ez diren beste datuak.
- Inprimakia: agiri orokorrak aurkeztuko dira

Laguntza eta dirulaguntza izendunak

Hartzailea duten dirulaguntzak dira, eta beraz, erakundearen aurrekontuetan agertu beharko dute. Kasu hauetan, araudiaren eta inprimakien eremuetan honakoa hartuko da kontuan:

- Araudia: aurrekontuen ordenantza orokorra edo kontusail edo programa jakina duten aurrekontuak
- Inprimakia: hitzarmena onuradunarekin

Ondoren, laguntza-eskaerak, dirulaguntzak eta sariak izapidetzean kontsultatu beharreko informazio-zerbitzu nagusietan jarraitu beharreko tratamendua aurkezten da.

LAGATZAILEA ZERBITZUA

DGP

Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea

GAIKUNTZA

Legea
Aurkakotasunik
eza

TRATAMENDUA GAITZEN DUTEN LEGEAK

39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (9, 28.2)

LAGATZAILEA	ZERBITZUA	GAIKUNTZA	TRATAMENDUA GAITZEN DUTEN LEGEAK
ERREGISTRO ZIBILA	Ezkontzei buruzko datuak	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
	Heriotzei buruzko datuak	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
DGT	Ibilgailuei buruzko datuak	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
GSIN	Prestazio Sozial Publikoen Erregistroko prestazioak, aldi baterako ezintasuna eta amatasuna	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
IGAE	Desgaitzeen kontsulta	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
	Jasotako dirulaguntzen jakinarazpena	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
	Jasotako MINIMIS laguntzen jakinarazpena	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
GSDN	Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuta izatea	Legea Aurkakotasunik eza	38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzkoa (23.3) 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
AEAT	Zerga-betebeharrak ordainduta izatea	Ez dago eskuragarri	58/2003 Legea, Zergen Lege Orokorra (95.1.d) 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzkoa (23.3) 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
Foru Aldundiak	Zerga-betebeharrak ordainduta izatea, laguntzak eta dirulaguntzak eskatzeko	Legea	Zergei buruzko Foru Arau Orokorra, Araba / Gipuzkoa (92.1d) / Bizkaia (94.1d) 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzkoa (23.3) 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
	Errenta-maila: PFEZ, Kontuen Maila, Ondasun Higiezinak	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)

LAGATZAILEA ZERBITZUA		GAIKUNTZA	TRATAMENDUA GAITZEN DUTEN LEGEAK
	Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafeak kontsultatu	Aurkakotasunik eza	Zergei buruzko Foru Arau Orokorra, Araba / Gipuzkoa (92.1d) / Bizkaia (94.1d) 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
EJ	Familia ugariaren tituluak	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
	Izatezko bikoteen erregistroan izena emanda izatea	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
LANBIDE	DSBEri dagozkion diru-sarrerak	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)
ETXE BIDE	Etxebideren datuak	Aurkakotasunik eza	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2)

Zerbitzu bati bi gaikuntza mota aplikatu ahal zaizkionean, izapidetzea sinplifikatzeko xedez, honako hau gomendatzen da:

- Prozedura bat izapidetzeko eskatu beharreko zerbitzu guztiak legez gaituta daudenean, modu hori erabiltzea zerbitzu guztietarako.
- Prozedura batek legez eta aurka ez egiteagatik gaituta dauden zerbitzuak eskatu behar dituzenean, eta, gainera, aurka ez egiteagatik bakarrik gaituta dauden beste zerbitzu batzuk ere eskatu behar dituzenean, bigarren kasu hori erabiltzea guztientzat.